

## UPV/EHUko LETREN FAKULTATEKO ERAIKINETARA OHIKO IREKIERA ORDUTEGITIK KANPO SARTZEKO PROZEDURA.

Gerentearen "Prebentzio neurri osagarriak ikastegiak ordutegiz kanpo zabaltzen direnean larrialdiren bat dagoenerako" izeneko prozedurarekin bat etorritik, eskolaz kanpoko orduetan sartzeko eskaera honela izapidetuko da:

- **Sartzeko eskabidea** behin beteta eta sinatuta, fakultateko administrazio buruari, [letrak.fak.administrazio.burua@ehu.es](mailto:letrak.fak.administrazio.burua@ehu.es), bidaliko zaio, dekanok baimendu eta sina dezan.
- Eskariak **72 ordu lehenago** egin beharko zaizkio fakultateari, honek 48 ordutako aurrerapenez jakinarazi beharko diolako segurtasun zerbitzuari eraikinean sartzeko baimena nork daukan.
- Eskaera baimendu ondoren, sinatutako kopia bat bidaliko zaio eskatzaileari, ikastegira sartzean UPV/EHUko segurtasun zerbitzuari aurkez diezaion. Baimena eman ezean ere jakinaren gainean jarriko da eskatzailea.
- Eraikinean sartu aurretik, baimendutako pertsonak segurtasun zerbitzura deituko du (945 013870), eta segurtasun pertsonalak NANaren edo parekoaren bidez eta Dekanoak sinatutako eskaeraren bidez identifikatuko du eskatzailea.
- Ikasleak ezin izango dira sartu (ez eta masterreko eta doktoregoko ikasleak ere). Ikasleak salbuespenezko kasuetan besterik ezin izango dira sartu programatutako eta behar bezala justifikatu eta baimendutako jarduera akademiko bat garatzeko. Aurkeztu beharreko justifikazioan zehaztu beharko da jarduera ezin dela burutu ikastegiaren irekiera ordutegiaren barruan, eta ikasleak fakultateko irakasle-ikertzaile bat izango du ondoan beti, eskabidearen erantzule eta abal gisa. Dekanoa arduratuko da eskaera baloratu eta, hala balegokio, baimentzeaz.

- **Larrialdietan jarduteko prozedura:**

Erabiltzaileak, kasuan kasuko jarduera dela eta, arrisku egoeraren bat sortuko balu, edota era horretako egoeraren bat antzemango balu, berehala deitu beharko du Kontrol Zentrora (945013870) edo alarma sakatu. Ondoren, gertuen lukeen larrialdietako irteerara joango da, Autobabeserako Planean agertzen den ebakuazio bidea erabilita, elkarguneraino iritsi arte.

- Zuen informaziorako, Letren Fakultateko larrialdi eta autobabes planak eta UPV/EHUko Gerentziak gai honen inguruan emandako erabakia fakultateko webgunean daude:

<https://www.ehu.eus/eu/web/letren-fakultatea/larrialdi-planak>

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailak 16